

Familiantzako Gida

**Gida honetan
hezkuntzari buruz
hitz egiten da eta
zehazki gai hauek
jorratzen dira:**

Hezkuntza



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Familia agurgarria:

Zuen seme-alaba **Haur Hezkuntzan** matrikulatzearekin bide luze bati ematen diozue hasiera, eta bide horretan hezkuntzako profesionalak izango dituzue bidelagun, baita zuena bezalako beste familia batzuk ere. Zuen seme-alaben heziketa, beraz, bide bizia izango da, prozesu liluragarria.

Zuek zarete heziketa horren lehen arduradunak, eta eskolak heziketa hori eraginkorragoa eta osatuagoa izan dadin lagun dezake, besterik ez. Ezin zaituztegu ordezkatu, ezta ordezkatu behar ere. Bizikidetza positiboko esparru baten barruan, zuen seme-alabek ahalik eta heziketarik onena izan dezaten lagun diezazuekegu, besterik ez. Esparru horren barruan, zuen seme-alabei modu inklusiboan lagunduko zaie zeharkako eta diziplinako gaitasunak garatzen, eta, horretarako, pertsona gisa definitzen gaituzten elementu garrantzitsuenetako bat kontuan hartuko da: dibertsitatea. Pertsona guztiak desberdinak gara; hartara, pertsona bakoitzari erantzutea erronka handia da aukera-berdintasuna bermatzeko.

Gida honen helburua da ahalik eta modu laburrenean azaltzea nola antolatuta dagoen hezkuntza, zein diren etapa bakoitzaren ezaugarriak eta mugarri garrantzitsuenak, zein diren trantsizio-uneak (etapa batetik bestera aldatzea), zein diren erreferentziazko profesionalak, zer programak ahalbidetuko duten ikasleen premiei eman beharreko erantzuna hobeto zehaztea, eta abar.


Gure hezkuntza-sisteman, **derrigorrezko irakaskuntza eta derrigorrezkoa ez den irakaskuntza** bereizten dira. **Haur Hezkuntzako etapa** derrigorrezkoa da. Oinarrizko Hezkuntza, Lehen Hezkuntzarekin hasten dena eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 4. mailan amaitzen dena, derrigorrezkoa da neska-mutil eta nerabe guztientzat.

Lanbide Heziketa eta **Batxilergoa**, aldiz, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntza dira. Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etaparen barruan, **hezkuntza-premia bereziak** dituzten ikasleak **helduarora bideratzeko programetara** sartzen dira.

Helduarora bideratzeko programak dira desgaitasun larri batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen bizitza aktiborako prestakuntza-eskaintza espezifikoak; zehazki, derrigorrezko eskolatze-aldia amaitu ondoren Oinarrizko Lanbide Heziketan sartzen ez diren ikasleei zuzentzen zaizkie. Programa horietan gehienez ere lau ikasturtez aritzen dira ikasleak; 20 urte bete arte, oro har. Salbuespen gisa, eskolatzea 21 urtera arte luzatzeko baimena eman ahal izango zaie, baldin eta ebaluazio-taldeak uste badu, autonomia handiagoa lor dezaketela, haien jarreraren eta interesen arabera.

Hezkuntza Sailaren web-orrian hezkuntza-sistemari buruzko informazioa duzue, zenbait hizkuntzatan. Informazio hori eskura dezakezue [hemen](#).

Hezkuntza-etapa bat derrigorrezkoa ez izateak ez du esan nahi garrantzirik ez duenik. Nolanahi ere, munduko herrialderik garatuenean (**ELGA Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen**) adostasunak ezartzen du derrigorrezko eskolatzea 5 edo 6 urterekin hastea.



Has gaitezen Haur Hezkuntza azaltzen, baina aurretik **hizkuntza-ereduak** ere aipatu behar ditugu, eskolaratzeko unean horien inguruan erabaki beharko baita.

Hizkuntza-ereduak

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial ditugu: euskara eta gaztelania. Horien inguruan hiru hizkuntza-eredu antolatu dira:

- **A eredia:** irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, euskara izan ezik.
- **B eredia:** irakasgai batzuk euskaraz ematen dira eta beste batzuk gaztelaniaz (oro har, matematikak eta idazten eta irakurtzen ikastea).
- **D eredia:** irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, gaztelania izan ezik.

Hiru ereduak, gainera, **lau urtetik aurrera ingelesa** irakastea ere hartzen dute barnean.

2019-2020 ikasturtearen hasieran, 3 - 5 urteko tartean, D eredia da nagusi eta gora egiten jarraitzen du. 7 hamarren egin du gora eta lehen aldiz % 80tik gorakoa da; zehazki, % 80,4koa. Bestalde, B eredia familien % 16,1ek hautatu dute eta A eredia familien % 3,5ek.

Haur Hezkuntza

Euskadik, 2012. urtetik aurrera, bilakaera positiboa izan du 0 eta 5 urte bitarteko adinetan eskolatutako haurren tasan. 2016-2017 ikasturtean, urtebete baino gutxiagoko haurren eskolatze-tasa % 15 baino handiagoa izan zen, 1 urteko haurren eskolatze-tasa % 45,7koa izan zen, 2 urteko haurren eskolatze-tasa % 93,5ekoa eta 3, 4 eta 5 urteko haurren eskolatze-tasa % 99tik gorakoa (eskolatze osoko tasa gisa ezagutzen dena).

Euskal hezkuntza-sistemak, beraz, hezkuntzaren arloko 2020ko Europako sei esparru-xedeetako bat betetzen du, zehazki, 4 urteko adinetik derrigorrezko eskolatze-adinera bitartean dauden haurren % 95 Haur Hezkuntzan eskola daitezen lortzea. Izatez, Estatuko batez bestekoa eta Europako herrialde gehienena gainditzen du.

Haur Hezkuntza —0 eta 6 urte artean— da pertsonen neurogarapenerako etaparik garrantzizkoena. Eraikuntza pertsonalaren eta sozialaren oinarriak ezartzen diren unea da. Egindako arreta-ahaleginek une horretan dute inpakturik handiena eta, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak dioen bezala, funtsezko zeregina betetzen du «haurraren ongizatean eta garapen kognitiboan eta sozioemozionalean, Haur Hezkuntzako etapa egitea lagungarria izan baitaiteke inklusioa errazteko eta desberdintasun soziala arintzeko» (2017).

Haur Hezkuntza hain garrantzitsutzat jotzen da, **UNESCOK** (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak) **Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako** helburuen artean honako hau barnean hartu duen: «neska-mutil guztiek lehen haurtzaroan arreta- eta garapen-zerbitzuak eta kalitatezko eskolaurreko hezkuntza eskura dutela ziurtatzea, Lehen Hezkuntzarako prestatuta egon daitezen».

«Lehen haurtzaroko hezkuntzak garapen goiztiarreko atzerapenak konpentsa ditzake, errendimendu-arrakala murriz dezake eta, aurrerago, bizitzako desberdintasuna murriz dezake.» (Heckman & Gertler, 2014)

Horrez gain, euskal hezkuntza-sistemak Haur Hezkuntzako etapan egiten du **Arreta Goiztiarra**. Garapenean zailtasunak edo arriskuak dituzten haur guztien alde esku hartzeko modua da arreta goiztiar hori, eta, Foru Aldundiekin, Osakidetzarekin eta Hezkuntza Sailarekin elkarlanean egiten denez gero, hiru sistema horietako profesionalen arteko jarduna koordinatzea errazten du.

Hezkuntza-arloan, eta garapen-nahasmenduen edo arrisku biologikoko edo psikosozialeko egoeren ondorioz, berariazko hezkuntza-laguntzako premiak dituzten 2 eta 6 urte bitarteko ikasleei zuzendutako esku-hartze guztiak hartzen dira **arreta goiztiartzat**, baldin eta laguntzako premia horiek Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren bidez eskatu badira. Eskolan hautematen denean neska edo mutil batek zailtasunen bat duela, berariazko arreta emango zaio, zailtasun horrek baldintza ez dezan haurrak ikaskuntzan izan beharreko aurrerapena. Laguntza Zerbitzuek (Berritzeguneek) arlo horretako aholkuak emango dizkiete ikastetxeei.

Familiaz gain, ikastetxea da garapen-zailtasunei erantzuteko ingurune naturalik eraginkorrena eta iraunkorrena. Hala ere, osasun-sistemak (Osakidetzak, gure kasuan) eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuak esku hartu ezean, kasu gehienetan ez litzateke erantzun egokirik sortuko eta ez litzaieke arreta emango garapenaren dimentsio guztiei.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntzaren arloan, eskaintzen den Arreta Goiztiarrari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, sartu [hemen](#).

Nabarmendu behar da, Haur Hezkuntzan eta Arreta Goiztiarraren testuinguruan, **Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa** aplikatzen dela 2, 3, 4 eta 5 urteko haurren kasuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren eskusiboa da. **Haurren Garapena Behatzeko Eskalen (HGBE)** bidez, irakasle tutoreak baloratuko du haurren garapenak espero den ibilbideari jarraitzen dion. Aintzat hartzen dugu haur bakoitzak bere garapen-erritmoa duela; hartara, malguak gara eta, balorazio horretan, haur bakoitzaren egoera hartzen dugu kontuan. Gainera, garapenean sor daitezkeen zailtasunak ez ezik, haien adinaren arabera espero zitekeena nabarmen gainditzen duten Haur Hezkuntzako ikasleen kasuak ere hartzen ditugu aintzat, goiztiartasun kasuak detektatuz.

Ikaskuntza-erritmo desberdin horiek, batzuk mantsoagoak eta beste batzuk azkarragoak, pertsonen dibertsitatearen parte dira. Eskalen bidez egiten den behaketari esker, ahalik eta azkarren esku hartu ahal izango da, frogatuta baitago ahalik eta azkarren esku hartzea eraginkorra dela garapeneko zailtasunak konpentsatzeko eta ikaskuntza-erronka handiagoko eskariei aurre egiteko. Horrela eginda, soilik, arituko gara guztientzako eskola baten printzipioa betetzen. Dokumentu honetan Eskala horiei buruzko informazioa txertatu da.

Eskalei buruzko informazioa

4 eta 5 urteko haurren kasuan, azaroan eta abenduan egiten da behaketa hori, eta, 2 eta 3 urteko haurren kasuan, otsailean eta martxoan egiten da. **Garapenaren Ohiko Zaintza** deitzen diogu. Ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasle tutoreak jakinaraziko dizue nola egingo den eta zuen partaidetza nolakoa izango den, prozesu osoan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra baituzue —beharrezko erabakiak hartzeko garaian ere bai—.


Haur Hezkuntza egin ondoren, zuen seme-alaba **Lehen Hezkuntza** egiten hasiko da, eta etapa hori, aurrez aditzera eman dugunez, ^o izenekoaren parte da.

Oinarrizko Hezkuntza: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Hezkuntzaren etapa horien helburua da ikasle **guztiek** garatzea bizitza autonomorako, arduratsurako, sozialerako eta parte-hartzaileerako oinarrizko gaitasunak. Ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatuko da, eta pertsona bakoitzak ahalik eta garapenik handiena lor dezan saiatuko da.

Hau da, ikasle guztien autonomiaren eta gaitasunen garapen-mailarik handiena lortzen ahaleginduko da.

Hurrengo eskeman ikus dezakegu, laburbilduta, hezkuntza-sistemaren egitura.



Lehen Hezkuntza, gehienetan, 6 urterekin hasten da, baina gerta daiteke haur batzuek bizitzako etapa horretan (0 eta 6 urte bitartean) larritasun desberdineko zailtasunak izatea; hartara, horrelakoetan komenigarria izan daiteke **Lehen Hezkuntzaren hasiera atzeratzea**. Noiz hartuko dugu aintzat hasiera atzeratzeko

aukera hori? Neurogarapenaren nahasmenduak dituzten neska-mutilen kasuan, nahasmendu horiek hezkuntza-premia bereziak eragiten dituztenean.

Gerta daiteke, halaber, komenigarria izatea **derrigorrezko eskolatzea aurreratzea**, ikasle batek erakutsitako ezohiko gaitasunen ondorioz.

Derrigorrezko eskolatzea ez da atzeratzen edo aurreratzen ezintasunen bat dagoen kasu guztietan, ezta ezohiko gaitasun bat hautematen den bakoitzean ere.

Gisa horretako erabakiak ezin dira automatikoak izan. Baloratu beharko da baldintza pertsonal horiek zer inpaktu duten ikasleen gaitasunen ikaskuntzan eta garapenean. Pertsona bat bera ere ez da beste pertsona baten berdina. Baldintza pertsonal jakin batzuk berdinak dituzten arren, askotarikoak eta intentsitate desberdinekoak izan daitezke.

Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (Oinarrizko Hezkuntza) oso etapa desberdinak dira, eta halakoxeak dira ikasleak berak etapa bakoitzean (haurrak dira batean, eta nerabeak dira bestean). Hala ere, hezkuntzaren ikuspegitik, batez ere alderdi hauek aldatzen dira: landu beharreko gaitasunak, nola egiten den, ikasleek zer parte-hartze duten beren ikaskuntzan, eta, azkenik, gaitasun horietan espero den garapen-maila.

Badakigu ikasle guztiek ez dutela modu berean eta erritmo berean ikasten; hori dela eta, Oinarrizko Hezkuntzan bi aldiz errepika daiteke; kasu horietan, beraz, 18 urterekin amai daiteke Oinarrizko Hezkuntza. Modu berean, eta gaitasun handiko ikasleen kasuan, Oinarrizko Hezkuntzako aldia murriz daiteke.

Oinarrizko Hezkuntzako ibilbideak eta programak: indargarrietatik berariazko programetara

Oinarrizko Hezkuntzak ibilbide komuna du, eta ikasle gehienek ibilbide horri jarraitzen diote. Hala ere, zenbaitetan, dibertsitateari (dibertsitate kulturalari, gaitasunen dibertsitateari, sexu-orientazioaren dibertsitateari, genero dibertsitateari, baliabide sozioekonomikoen dibertsitateari...) hobeto erantzuteko programak garatu beharko dira. Hori dela eta, kulturartekotasuna sustatzearekin lotutako programak edo ekimenak ditugu, berariazko hezkuntza indargarriak ditugu, curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak ditugu, eskolatze osagarria dugu, Hamaika Esku programa, Bidelaguna programa eta abar.

Hemen aurki dezakezu horiei buruzko informazio gehiago:

Aniztasunari erantzuteko programak*

- Kulturartekotasuna sustatzeko programak
- Bidelaguna
- Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Programa
- Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak
- Eskolatze osagarriko programak
- Hamaika Esku programa

*Irudiko atal bakoitzean klik egiten baduzu, informazio gehiago lortuko duzu.

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etaparekin jarraitu nahi izanez gero, Derrigorrezko **Bigarren Hezkuntzako graduatu** titulua lortu beharko da. Ikasleek graduatu titulua lortu badute, Batxilergo edo Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloetara sar daitezke. Graduatu titulua lortu ezean, ikasleak Oinarrizko Lanbide Heziketara sar daitezke. Hala ere, nabarmendu behar da une jakin batean derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egin ezin izateak ez duela esan nahi etorkizunean egin ezin direnik; ikasketa horietara sartzeko beste bide batzuk ere erabil daitezke.

- **Batxilergoan** saiatzen da ordura arte landutako ezagutzak sakontzen eta ezagutza horiek pertsonen eta gizartearen arazoak konpontzeko erabiltzen, helduarorako prestatuz. Bi urte horietan, ikaslea goi-mailako ikasketak egiteko edo lan-munduratzeko prestatzen da.
- **Lanbide Heziketa**, berriz, lanerako heziketara eta lan-merkatura bideratzen da. Heziketa, berez, bizitza osoa iraute duen prozesua da. Hartara, Lanbide Heziketari buruz hitz egiten dugunean, gazteek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean egin ohi duten prestakuntza arautuari buruz ez ezik, dagoeneko lanean ari diren eta/edo «**gaitasun profesionalaren aitorpena**» behar duten pertsonentzako **enplegurako prestakuntzari** buruz ere ari gara.

Ikasle gehienek deskribatu ditugun ibilbideak jarraitzen dituzte. Nolanahi ere, euskal hezkuntza-sistemak beste mota bateko erantzunak ere ematen ditu Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan ematen den hezkuntzaren bidez, edo urrutiko hezkuntzako formulen bidez (**Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua**).

Hezkuntzako ikuskapena eta Hezkuntza Laguntzako Zerbitzuak

Hezkuntzako Ikuskaritzaren eginkizuna da kalitateko hezkuntza-sistema bat lor dadin bultzatzea eta eskola-elkartea osatzen duten pertsonen eskubideak bermatzen laguntzea.

Ikastetxeak eta sistemaren gainerako elementuak kontrolatzen eta ebaluatzen ditu eta aholkuak ematen dizkie, horien hobekuntzan laguntzeko. Sistemaren ebaluazioetan parte hartzen du eta hezkuntza-administrazioari guztiaren berri ematen dio, proposamen moduko balorazio teknikoen bitartez.

Laguntza-zerbitzuak, Berritzegune ere deituak, ikastetxeez kanpoko zerbitzuak dira, eta hezkuntzaren arloko aholkularitzan, prestakuntzan, berrikuntzan, esperimentazioan eta ikerketan laguntzen dute.

Berritzeguneak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietara iristen dira — sare publikoko ikastetxeetara zein itunpeko ikastetxeetara —, Etapako Aholkularitzaren bidez eta **Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren** bidez.

Etapako aholkularitzak Hezkuntza Sailaren ildo lehenetsiekin lotzen den guztian aholkatzen eta prestatzen ditu ikastetxeak. Ildo horiek askotarikoak dira: hezitzaileen prestakuntzari buruzkoak, hezkuntza inklusiboari buruzkoak, aniztasunaren trataerari buruzkoak, hezkuntza eleaniztunari buruzkoak, *steam* estrategiari buruzkoak, material didaktikoei buruzkoak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzkoak, ebaluazioari buruzkoak, ikerketari eta ikastetxeen autonomiari buruzkoak eta kudeaketari buruzkoak.



Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzak, bestalde, **berariazko hezkuntza-laguntzako premiak** dituzten ikasleen eskolatzeko-prozesuan eta garapen- eta ikaskuntza-prozesu osoan esku hartzen du. Nabarmendu behar da ikastetxearen eskariz baino ez duela esku hartzen, eta beti ikasleen premiei erantzuteko duen gaitasuna hobetzeko.

Laguntza-zerbitzuei buruz gehiago jakin nahi baduzu, **hemen** aurkituko duzu.

Ikasleen berariazko premiak

Eskola inklusiboaren esparruan dibertsitateari erantzuteak ekarriko du ikaskuntzan sor daitezkeen oztopoak gainditzea eta ikasle guzti-guztiek parte-hartzea. Horretarako, funtsezkoa da ikasleak ezagutzea eta haien premiak antzematea.

Ikasgelako tutoreak dira ikasleen hezkuntza-premiak antzematen dituzten lehenengoak, eta haiek egiten dute lehen balorazioa. Batzuetan, diagnostiko kliniko batek eskatuta egiten da (bizitzako lehen bi urteetan antzemandako desgaitasun bat duten ikasleekin maiz gertatzen dena), baina kasu guztietan kontuan hartzen da ikaskuntza-prozesuak zer bilakaera izan duen dagokion testuinguruan, ikastetxean eta ikasgelan.

Premiak baloratu ostean, eta irakasle aholkulariaren laguntzaz, haurrak aurrera egiteko neurriak planteatu beharko dira. Hasiera batean, ohiko neurriak hartzen dira, hala nola arlo instrumentalak berreskuratzeko ikaskuntza-taldeak, komunikazio-hizkuntzak (ikasgelan erabiltzen diren hizkuntzak) indartzeko taldeak, ikasleen interesen arabera hezkuntza-tailerrak, ikasgaiak esparrutan antolatzea, talde kooperatiboak edo elkarreragileak sortzea, indartze-programak, eta abar.

Ikasleen aniztasunari erantzuteko ohiko neurri guztiak —irakasle tutoreak eta irakasle orientatzaileak edo aholkulariak proposatutako neurriak— behar bestekoak izan ez direnean, soilik, planteatu daiteke Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzari **balorazio psikopedagogikoa** eskatzea.

Zein da balorazio psikopedagogikoaren helburua?

Balorazio psikopedagogiko horren helburua da ezartzea ba ote dagoen **berariazko hezkuntza-laguntzako premiarik**. Diagnostiko kliniko batekin nahastu behar ez den balorazio horren ondorioz, Aholkularitzak orientabideak eta aholkuak eman beharko ditu eskola barruan hautemandako hezkuntza-premiei erantzuteko egokien iruditzen zaizkion neurriei buruz.

Nork hasiko du balorazio psikopedagogikoko prozesua?

Ikastetxeak, hau da, irakasle tutoreak hasten du beti balorazio psikopedagogikoko prozesua. Ikasle baten zailtasun pertsonalak edo ikasteko zailtasunak ikusi ondoren, eta hartutako neurriek aurreikusi diren emaitzak eskaintzen ez dituztela antzeman ostean, irakasle tutoreak, irakasle aholkulariekin elkarlanean, eskatzen du Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzak esku-hartzea.

Aholkularitza horrekin batera aztertuko da kasua, eta egokitzen jotzen diren esku-hartzeak erabakiko dira eta horien barruan egongo da, besteak beste, balorazio psikopedagogikoa — baldin eta ez badira ordura arte zehaztu ikaslearen hezkuntza-premiak —. Familiak zehazki eta dokumentatuta baimendu beharko du balorazio hori.

Familiak eska al dezake egindako balorazio psikopedagogikoaren txostena?

Familiak egin den balorazioaren eta haren ondorioen txostena eduki dezake. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eskatu beharko du beti, ikastetxeek ez baitute horrelako txostenik; izan ere, Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzak txosten horiek jaulki ditzake, soilik, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eskatzen dionean.

Datu sentikorrak direnez gero, Hezkuntza Sailak datu horiek babesteko legezko betebeharra du, eta, horretarako, egokien jotzen dituen bitartekoak erabili beharko ditu.

Balorazio psikopedagogikoaren ondoren zer?

Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzak egindako balorazioaren eta orientabideen ondoren, **jardun-plan** bat ezarriko da. Plan horren barnean sar daitezke **sarrerako egokitzapena, arloko egokitzapena, egokitzapen globala edo** ikaskuntza **zabaltzeko egokitzapena**.

- **Sarrerako egokitzapenek** ikaskuntzetara “sartzeko” aukera ematen diete berriazko hezkuntza-laguntzako premiak dituzten ikasleei, eta saihestuko dute hizkuntzaren arloko zailtasunek edo irakurketaren eta idazketaren ondoriozko zailtasunek, besteak beste, ez eragozteko ikasleek eskolan eta norberaren bizitzan aurrera egitea.
- **Arloko egokitzapenez** ari garenean, berriz, jakintza-arlo jakin batean ikaskuntzari laguntzeko premiaz ari gara; hori gertatuko da jakintza-arlo horretan atzerapen nabarmena gertatzen denean, betiere ikasgelako programan ezarritakoarekin alderatuta.
- **Egokitzapen globalak** eskatzen du curriculumaren irakasgai gehienak egokitzea, baldin eta irakasgai gehienetan edo guztietan atzerapen adierazgarria badago. Egokitzapen horiek adimen-desgaitasuneko egoerekin edo garapenaren arloko beste desgaitasun batzuekin lotuta egoten dira.
- Azkenik, ikaskuntza **zabaltzeko egokitzapena** egokia da maila jakin bateko curriculumak gainditzeko denean eta komeni denean ikasleak ikaskuntzan aurrera egiten jarraitzeko aukera izatea. Gaitasun handiko ikasleentzako neurri egokia izan ohi da.

Jardun-plana aldian behin berrikusiko da; oro har, hiru hilean behin egiten diren ebaluazioak egiten direnean. Ebaluazio horietan, tutoreak eta irakasle-taldeak ikasleen aurrerapenak berrikusiko dituzte eta, hala badagokio, bidezko aldaketak egingo dituzte.

Laguntza pertsonalek eta/edo teknikoek esku hartzen dutenean, edozein unetan berrikus daitezke laguntza horiek zer ekarpen egiten dioten jardun-planari; alabaina, arauen arabera, urteko lehen hiruhilekoan egin behar da, hezkuntza-administrazioak hurrengo ikasturterako giza baliabideak planifikatzeko erabiltzen dituen **aurreikuspenen** arabera egingo baita.

Zertan datza laguntza? Eskolak ikasleen aniztasunari erantzungo badio, hezkuntzaren arloko profesionalek erabiltzen duten testuinguruko edozein elementu izango da laguntza —pertsonala izan, antolamendukoa izan, materiala izan edo metodologikoa izan—.

Horrenbestez, eta jende askok uste duenaren kontra, laguntzaz hitz egiten ari garenean, pertsona buri ezezik —espezialistak izan edo ez izan—, indargarri-programa jakin bati buruz, eskolak antolatzeko modu bati buruz edo ikasleen premiei behar bezala erantzuteko aukera emango duten material zehatz batzuen erabilerari buruz ere hitz egiten ari gara.

Kasu gehienetan, beharrezko laguntzak **unibertsalak** izango dira, eta ohiko irakatsi eta ikasteko prozesuan izango dute eragina —prozesu horretan, ohiko irakasle-taldeari dagokio esku hartzea—. Laguntza horiek prebentziozkoak dira, eta lagungarriak dira zailtasunak goiz hautemateko eta oztopoak identifikatzeko; hartara, eskolaren testuingurua ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko aukera ematen dute.

Neurri unibertsalekin nahikoa ez denean, laguntzek espezifikoagoak izan beharko dute.


Azkenik, ikasle batzuen premiei erantzun ahal izateko, eskolaren testuinguruan aldaketa adierazgarriak eskatuko dituzten egoerak ere aurkituko ditugu.

Gaur egungo Hezkuntza Legeak izena jartzen die premia espezifiko horiei guztiei, eta honela egiten du:

- **Berariazko hezkuntza-laguntzako premiak** aipatzen ditu eta «ohiko hezkuntza-arretaz bestelako arreta behar duen ikasle» kopuru oso zabal baten premiei buruz hitz egiten du; ikasleek arreta hori behar dute «hezkuntza-premia bereziak edukitzeagatik, ikasteko zailtasun espezifikoak izateagatik, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua izateagatik, adimen-gaitasun handiak izateagatik, hezkuntza-sisteman berandu sartzeagatik, edo haien baldintza pertsonalengatik edo eskola-historiagatik».
- Kategoria orokor horren barruan, **hezkuntza-premia bereziak** (HPB) aipatu behar ditugu. Kontzeptu hori lotzen da «eskolatzearen aldi batean, edo eskolatze-aldi osoan, desgaitasunen edo jokabide-nahasmendu larrien

ondoriozko hezkuntza-laguntza eta -arreta espezifikoak behar dituzten ikasleen premiekin».

Hurrengo irudian aurkezten dugun eskemaren bidez, errazago ulertu ahal izango da legean nola antolatzen diren ikasleen premiak, batzuetan familiei argitu behar baitzaie..



Balorazio psikopedagogikoak eskolatze desberdina ekar al dezake?

Batzuetan, oso gutxitan eta soilik laguntza-premia oso handiak daudenean (normalean desgaitasun larriekin lotuta), komeni da **ikasgela egonkor** deritzan ikasgeletan eskolatzea, ikasgela horietan ikasle horiei erabateko dedikazioa eskaintzen dieten laguntzako profesionalak baitaude. Horrek ez du esan nahi ikastetxearen bizitzan parte hartzen ez dutenik; izatez, inklusioarekin duen konpromisoaren ondorioz, ikastetxeak beharrezko ahalegin guztiak egingo ditu ikasle horiek jarduera eta espazio posible guztiak haien berdinekin parteka ditzaten.

Maiztasun askoz ere txikiagoan, haur horiek **hezkuntza bereziko ikastetxeetan** eskolatzen dira. Eskolatze hori soilik da egokia hezkuntza-premiei laguntza- eta osasun-premiak argi eta garbi nagusitzen zaizkienean¹.

Balorazio psikopedagogikoak eragina izan al dezake maila errepikatzean edo mailaz aurreratzean?

Maila errepikatzeari edo mailaz aurreratzeari buruzko erabakiak curriculumarekin lotuta hartzen dira, hau da, erabaki horiek hartzean erreparatuko zaio ea ikasleak lortu dituen curriculumak maila eta etapa bakoitzerako ezartzen dituen gaitasunak eta helburuak.

Kasu jakin batzuetan, balorazio psikopedagogikoa da erabaki hori hartzeko aurretiazko baldintza. Hala gertatzen da **derrigorrezko eskolatzearen hasiera atzeratu** nahi denean (Haur Hezkuntzan) **edo aurreratu** nahi denean. Oinarrizko Hezkuntzan mailaz aurreratzea ere planteatu daiteke, gaitasun handiko ikasleak direnean.

¹Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan eskolatuta dauden ikasleek ehunekoa % 2,30ekoa da (Berriazko Hezkuntza Laguntzako Premiak dituzten ikasle guztiekiko). [Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa \(2019\)](#). 53. orr.

Derrigorrezko eskolatzearen hasiera atzeratzeko edo eskolatzeko aldia malgutzeko baimena Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagokio, eta Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak aurkeztutako txostenetan oinarritzen da baimen hori.

Hezkuntza-ibilbidea, beraz, mailatan antolatzen da eta maila horiek haurren adina hartzen dute erreferentziaz, betiere neska-mutil bakoitzaren banako desberdintasunak kontuan izanik. Edonola ere, eskolatzearen hasiera atzeratuz gero, ikasleak Oinarrizko Hezkuntzan izan ditzakeen maila errepikatzeko bi aukeretako bat “kontsumituko” du. Hori dela eta, erabaki hori ikaslearen garapen pertsonalerako eta sozialerako eta ikaskuntzarako hartutako erabakirik onena dela ziurtatuko duen prozesua izango da.

Honako **diagrama** honetan laburbiltzen dugu prozesu osoa:



Berariazko Hezkuntza Laguntzako Premiak dituzten ikasleentzako hezkuntza-zerbitzuak

Zergatik hitz egiten dugu zerbitzuez?

Nabarmendu nahi dugu laguntza zenbait profesionalen jardunaren emaitza dela, eta ez profesional bakar batena, bere alorrean espezialista izan arren.

Atal honetan baliabide pertsonalei buruz soilik hitz egingo dugu; edonola ere, hiru alderdi argitu behar ditugu Hezkuntza Sailak **berariazko hezkuntza-laguntzako premiak dituzten ikasleentzat** dituen zerbitzuak zein diren adierazi aurretik. Hartara, hobeto ulertuko dugu nola funtzionatzen dugun inklusiorako laguntzen arloan.

- **Lehen alderdia:** errepikakorrek garela eman dezakeen arren, nabarmendu behar dugu **ohiko baliabideak** eta **berariazko baliabideak** bereizi behar direla. Berariazko baliabide pertsonalek, berez, **ohiko baliabideei laguntzen** diete hezkuntza-arretan. Ondoren aditzera emango diren zerbitzuetako bakar bat ere ez da berariazko baliabide pertsonalekin soilik egiten. Guztiek aintzat hartzen dute **irakasle tutorea** ikasleen hezkuntza-ibilbideko **lehen arduradun gisa**. Beste modu batean esanda, **irakasle tutoreak koordinatu beharko ditu profesional espezifikoen jardunak, betiere jardun horien beharra duten bere ikasleen kasuan**.
- **Bigarren alderdia: laguntza-premien testuinguru-izaera.** Beste modu batean esanda, ikasle baten hezkuntza-premiak, ikaslea edozein hezkuntza-etapatan dagoela ere, ingurunearen araberrakoak, profesionalen araberrakoak, haren berdinen araberrakoak, zereginen araberrakoak eta horiek garatzen diren baldintzen araberrakoak dira, besteak beste. Horrenbestez, zerbitzu jakin bat baliatu beharko da hezkuntza-premiak identifikatzeko, baita laguntza eskaini behar den eskola-testuinguruaren elementu adierazgarrienak identifikatzeko ere. Hori dela eta, **ezin da zuzeneko lotura automatikoa ezarri diagnostiko jakin baten eta laguntza-baliabideak baliatzearen artean**.

- **Hirugarren alderdia:** laguntzako profesionaletako batzuen lan-edukia. Gerta daiteke hezkuntza-sistemaz kanpoko norbaitentzat ulergaitza izatea nola eskaintzen diren laguntza pertsonalak eta teknikoak **Berariazko Hezkuntza Laguntzako Premiei** erantzutean. Ulertzeko zailtasun horiek handiagoak izan litezke laguntzak giza garapenaren eremu berekoak direnean, edo esku-hartze sozialeko beste sistema batzuetan (hala nola osasunean) eskatzen den kualifikazio bera duten profesionalak eskaintzen dituztenean —edo kualifikazio bera dutela ematen duen profesionalak eskaintzen dituztenean—. Hala gertatzen da **fisioterapiarekin** eta **lanerako terapiarekin**, batetik, eta **Entzumena eta Hizkuntza irakaslearekin**, bestetik. Ulertu behar da **titulazio bera duten profesionalak zenbait zeregin egin ditzaketela, lan egiten duten lekuaren arabera (osasun-sisteman, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan...).**

Aurrekoa kontuan izanik, zerrendatuko ditugu **Berariazko Hezkuntza Laguntzako Premiak** dituzten ikasleentzako hezkuntza-zerbitzuak.

Komunikazioa eta hizkuntza garatzeko laguntza

Komunikazio- eta hizkuntza-oztopoak dituzten ikasleei zuzendutako zerbitzua da.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen artean komunikazioa eta hizkuntza garatzeko hezkuntza-jarduera guztiei buruz ari gara hemen; hartara, ikasle horiek, gainerako ikasleek bezalaxe, arlo horretan ahalik eta garapenik handiena lortu ahal izango dute. Jardun hori ikaskuntza-testuinguru naturaletan (ohiko ikasgelan eta jolastokietan) egin beharko da, batez ere, eta jarduera horietan komunikazioa sustatu beharko da lehentasunez.

Helburuak ezarriko dira ikasleen premien eta adinaren arabera eta ikasleak dauden hezkuntza-mailaren arabera.

Hauek dira zerbitzu hori eskaintzen duten profesionalak: irakasle tutorea, entzumen eta hizkuntzako irakasleak eta laguntzako irakasleak. Azken horien esku-hartzea irakasle tutorearen esku-hartzearen osagarria izango da eta lankidetzat testuinguru batean egin beharko da.

Sarrera: Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren bidez sartuko da, eta entzumen eta hizkuntzako irakaslearen balorazioarekin osatu ahal izango da, aholkularitza horren iritziaren arabera.

Oinarrizko gaitasunak garatzeko laguntza

Zerbitzu hau zuzentzen zaie oztopo **kognitiboak, sentsorialak eta psikikoak** dituzten ikasleei, baita **ikaskuntzaren oinarrizko prozesu psikologikoetan oztopoak** dituztenei ere.

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan berariazko hezkuntza-laguntzako premiak dituzten ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzera bideratutako esku-hartzeak hartzen ditu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan soilik gertatuko da curriculum-erreferentzia aurreko etapetan dagoenean edo curriculumean sartzea errazten duenean. Ikaskuntzaren testuinguru eta prozesu naturaletan artikulatu beharko da.

Helburuak ezarriko dira ikasleen premien eta adinaren arabera eta ikasleak dauden hezkuntza-mailaren arabera.

Hauek dira zerbitzu hori eskaintzen duten profesionalak: irakasle tutorea, entzumen eta hizkuntzako irakasleak eta laguntzako irakasleak. Azken horien esku-hartzea irakasle tutorearen esku-hartzearen osagarria izango da eta lankidetzat testuinguru batean egin beharko da.

Komeni da azpimarratzea entzumena eta hizkuntzako irakasleak hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan espezializatutako irakasleak direla. Hortaz, irakaskuntza-profil nabarmena dute. Askotan logopedekin nahasten dituzte, eta horiek oso bestelako lanbide-profila duten osasunaren arloko profesionalak dira.

Sarrera: Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren bidez sartuko da eta, entzumen eta hizkuntzako irakaslearen balorazioarekin edo beste profesional espezializatu batzuen balorazioarekin osatu ahal izango da, aholkularitza horren iritziaren arabera.

Oinarrizko gaitasunak eskuratzeko laguntza

Zerbitzu hau **itsutasunaren edo ikusteko urritasunaren ondoriozko oztopo sentsozialak dituzten ikasleei** zuzenduta dago (itsutasun larria, % 0,4ko ikusmen-zolitasuna edo % 20ko eremu-zolitasuna dutenei, Osasunaren Munduko Erakundearen baremoen arabera), baita Hezkuntza Sailaren eta Itsuen Erakunde Nazionalaren (ONCE) arteko lankidetzaren hitzarmenaren Zuzendaritza Batzordeak definitutako ikus-urritasuna dutenei ere (txosten medikoan adierazten dira). Era berean, **gorreriaren edo entzuteko urritasunaren ondoriozko oztopo sentsozialak dituzten ikasleei** zuzenduko zaie (40 db-ko galera baino galera handiagoak dituztenei, **txosten medikoan** adierazitako elkarriketa-maiztasunetan).

Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegien laguntza eta aholkularitza aurreikusten dugu, baita gorrieria duten ikasleen arretarako taldeen laguntza eta aholkularitza ere —horien erreferentziak eskualdeko Berritzeguneak dira—. Kasu horietan guztietan, lagungarriak dira oztopo sentsozialen ondoriozko edonolako hezkuntza-premia berezien detekziorako, diagnostikorako eta arretarako.

Hauek dira zerbitzu horien helburuak:

- Ikusteko eta/edo entzuteko urritasuna duten ikasleak barnean har daitezen lortzea, eskolan zein gizartean.
- Hezkuntzako profesionalei eta eskola-elkarteari aholkuak ematea.
- Ikusteko urritasuna edo itsutasuna eta/edo entzuteko urritasuna edo gorrieria duten ikasleei zuzendutako irakatsi eta ikasteko prozesua erraztea.
- Ikusteko eta/edo entzuteko urritasunaren ondoriozko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen familiei aholkuak ematea.

Zerbitzu horiek eskaintzen dituzten profesionalak dira:

- Ikusteko urritasuna duten ikasleei laguntza espezializatua emateko teknikariak.

- Ikusteko urritasuna duten ikasleei laguntzeko irakasle ibiltariak.
- Gorreria duten ikasleei laguntzeko irakasleak (kasu horretan laguntzako irakasleak zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan laguntzen duten irakasleak izan daitezke)
- Entzumen eta hizkuntzako irakasleak (komunikazioa eta hizkuntza garatzeko laguntza-zerbitzuan jada aintzat hartzen direnak).

Sarrera: Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren bidez eta ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegien bidez edo gorreria duten ikasleen koordinatzailearen lankidetzaren bidez sartuko da.

Autonomia garatzeko eta oinarritzko gaitasunak eskuratzeko laguntza

Berriazko Hezkuntza Laguntzako Premiak dituzten ikasleen autonomia pertsonalean eta sozialean eta oinarritzko gaitasunetarako eskuragarritasunean oztopoak eta premiak dituzten ikasleei zuzenduta dago (eremu motorra, autonomia, osasuna, segurtasuna, autorregulazioa eta komunitatearen erabilera). Gorreriaren edo gor-itsutasunaren ondorioz curriculumera sartzeko oztopoak dituzten ikasleei ere zuzentzen zaie.

Helburuak ezarriko dira ikasleen premien eta adinaren arabera eta ikasleak dauden hezkuntza-mailaren arabera. Edonola ere, funtsean hauek har daitezke aintzat:

- Eskola-bizitzan beharrezkoa den ikaslearen parte-hartzea eta curriculumerako sarrera erraztea.
- Egokitzapen-trebetasunak (komunikazioa, norberaren zaintza, etxeko bizitza, gizarte-trebetasunak, komunitatearen erabilera, autorregulazioa, osasuna, segurtasuna, lana eta aisialdia) garatzeko programak diseinatzen eta egikaritzen laguntzea, arretaren ardura duten irakasleen laguntzarekin eta gainbegiradarekin.

Profesional hauek egingo dute zerbitzu hori: hezkuntza-laguntzako espezialistek edo zeinu-hizkuntzako interpreteek eta gor-itsutasuneko bitartekariak (ONCErekin hitzartuta).

Laguntzako profesional horien esku-hartzearen helburua da ekitatea ziurtatzea eta, horretarako, ikasle horiek beren ikaskuntza-prozesua egin ahal izan dezaten erraztea, hori eragozten duten oztopoak ezabatuz. Kasu horretan daude, esate baterako, mugitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleak, laguntza profesionala behar baitute eskolan eta jolastokian egoteko edota ikastetxetik kanpo programatutako jarduera batean ikaskideekin batera parte hartu ahal izateko.

Sarrera: Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren bidez sartuko da. Zeinu-hizkuntzako interpretearen kasuan, Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzak gorreria duten ikasleen koordinatzailearen lankidetzara antola dezake.

Gaitasun funtzionalak garatzeko eta curriculumera sartzeko laguntza

Mugimendu-garapenaren arloko oztopo larri eta adierazgarriak dituzten eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zuzenduta dago. Oztopo horiek arriskuan jartzen dute curriculum arruntera sartzea, eta jardun okupazionalako arloetan edo osagaietan adierazten dira (eskuzko funtzioa eta ikastetxean ohikoak diren tresnen erabilera, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jarduera instrumentalak, ordenagailuaren eta komunikazioaren eskuragarritasuna, ergonomia eta parte-hartze sozialaren erraztasuna). Era berean, mugimendu-desgaitasun larri baten ondoriozko oztopoak dituzten ikasleei eta berariazko curriculumean sartzeari arriskuan jartzen duten hezkuntza-premia bereziak dituztenei zuzenduta dago.

Hezkuntzaren esparruan, profesional horien zeregina **oztopoak ezabatzean** oinarritzen da, hain zuzen ere lehen aipatutako ikasleek honako alderdi hauek garatzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatzean: mugitzeko gaitasuna, gorputz-jarreraren kontrola, autonomiarako trebetasunak eta curriculumak eskuratzeko trebetasunak. Era berean, irakasleekin eta hezkuntzako langileekin elkarlanean

jardun behar du, ikasleak garatu ahal izan ditzan eskola-ingurunean izan beharreko independentzia areagotzen duten trebetasun funtzionalak.

Hezkuntzarentestuinguruan, zerbitzu hori bi profesionalek eskaintzen dute: lanerako terapeutak eta fisioterapeutak. Profesional horien zeregina oztopoak ezabatzean oinarritu beharko da, hain zuzen ere lehen aipatutako ikasleek honako alderdi hauek garatzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatzean: mugitzeko gaitasuna, gorputz-jarreraren kontrola, autonomiarako trebetasunak eta curriculum eskuratzeko trebetasunak. Era berean, irakasleekin eta hezkuntzako langileekin elkarlanean jardun behar du, ikasleak garatu ahal izan ditzan eskola-ingurunean izan beharreko independentzia areagotzen duten trebetasun funtzionalak. Jardun bideratzailea da, ez birgaitzailea. Aukera eman behar du ikasle horiek ikastetxera joan ahal izateko, bertan egon ahal izateko eta gainerako ikaskideak bezalaxe ikasi ahal izateko.

Sarrera: Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren bidez sartuko da, fisioterapeutaren eta lanerako terapeutaren laguntzarekin.

Berariazko Hezkuntza Laguntzako Premiak dituzten ikasleentzako beste hezkuntza-zerbitzu batzuk

- Medikuen aginduz — osasun-erakunde batean **ospitaleratuta** egoteagatik, **etxean ospitaleratuta** egoteagatik edo **hezkuntza-programa terapeutiko** batean sartuta egoteagatik — ikastetxera ohikoa den moduan joan ezin diren **ikasleei hezkuntza-laguntza eta laguntza terapeutikoa ematea**.

Haur Hezkuntzaren kasuan, ospitale-arreta soilik da baliagarria.

- **Irakasle tutorearentzako eta irakasle taldearentzako aholkularitza eta laguntza:** irakasle aholkulariek eta irakasle orientatzaileek egiten duten zerbitzua hartuko da aintzat, berariazko hezkuntza-laguntzako premiei eman beharreko arretaren koordinatzaile diren heinean.

- **Irakasleentzako kanpo-aholkularitza:** ebaluazio psikopedagogikoa, berriazko hezkuntza-laguntzako premiak dituzten ikasleekin esku hartzeko eta horien jarraipena egiteko proposamena (Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzek egindako zerbitzua hartuko da aintzat).

Laguntzen intentsitatea, zerbitzuen intentsitatea

Zerbitzuen intentsitatea Adimenaren eta Garapenaren Desgaitasunen Ameriketako Elkartearen proposamenen (1997) arabera ezarri da. Elkarre horrek intentsitatearen arabera definitzen ditu laguntza motak:

- **Aldizkako laguntza:** aldian behingoa da, aldian-aldian ematen da, eta beharrezkoa denean
- **Laguntza mugatua:** aldi baterako laguntza, aldi jakin batean soilik behar dena
- **Laguntza zabala:** erregularitasuna du bereizgarri, ingurune batzuetan ematen da, eta ez du denbora-mugarik
- **Laguntza orokortua:** egonkortasuna eta intentsitate handia bereizgarri dituen laguntza, zenbait ingurunetan eta, segur aski, bizitza osorako eskaintzen dena.

Laguntza motaren proposamena Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzaren balorazio psikopedagogikoaren emaitza da. Esku hartzeko tarteak proposatzen ditu, eta tarte horiek alda daitezke ikaslearen bilakaeraren arabera.

Ikastetxea ikasleen dibertsitateari erantzuteko ardatza

Ikastetxea da ikasle guztiei eman beharreko erantzunaren ardatza. Euskal hezkuntza-sistemak erantzun hori errazten duten laguntza-zerbitzuak ditu, baina kanpoko zerbitzuak dira, eta, hartara, haien eskumenen eta erantzukizunen esparruan soilik osa dezakete erantzuna.

Malgutasunez jokatzeko gaitasuna ikastetxearen ardura da eta, aldi berean, ikastetxearen aktiboa da; hortaz, behar bezala erantzun ahal izango die ikasle guztien premiei.

Familiak funtsezko zeregina betetzen duenez gero, familieek ikastetxeko hezkuntza-prozesuan parte hartu eta inplikatu beharko dute, eta ikasleei arreta emango diete, haien autonomia ahalik eta gehien gara dadin erraztuz, hori baita etorkizuneko erronkei aurre egin diezaieketen pertsonak lortzen laguntzeko modurik onena.

Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu [hemen](#).

Argitaraldia: 1.a, 2020ko urtarrila • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila •. Internet.: www.euskadi.eus • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián. 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).